

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Hitzaldi-solasaldia Leyre Gravina irakaslearekin

Auzoen diseinua, biztanleen osasunean faktore erabakigarria

Durango, 2026ko otsailaren 27an. Ariketa fisiko gutxi egitea hautu bat da edo bizi garen kaleen diseinuaren ondorioa? Auzo bakoitzeko hiri-segurtasuna, argiztapena edo maila sozioekonomikoa bezalako faktoreek ariketa eta, horrenbestez, bertan bizi direnen osasuna baldintzatzen duten “errezeta mediko” ikusezin baten moduan eragiten dute.

Testuinguru horretan, Euskal Herriko Unibertsitateko Erizaintza eta Osasunaren Sustapena ikertaldeak bultzatutako [MugiBil](#) herritar-zientziako proiektuak auzoak diseinatzeko erak bizilagunen osasunean nola eragin dezakeen ikertu du, ibiltzeko edo beste ariketa fisikoren bat egiteko ohiturak baldintza ditzakeen aldetik.

Osasun komunitarioko proiektu hau ezagutzera emateko, ekimenaren ikertzaile nagusi eta EHUKo Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle den **Leyre Gravinak** “El diseño de los barrios, factor determinante en la salud de sus habitantes” (Auzoen diseinua, biztanleen osasunean faktore erabakigarria) izeneko hitzaldi-solasaldia eskainiko du **martxoaren 6an, ostirala, Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan**.

Hitzaldian, Gravinak azalduko du Bilboko Deustu, Uribarri eta San Frantziskoko berrogeita hamar bat lagun atera zirela kalera beren ingurune hurbila aztertzerako. Bost astez, ekimenean parte hartu zutenek hiru auzootako oztopoak eta baliabideak identifikatu eta dokumentatu zituzten argazkien bidez. Lan kolektibo horri esker, auzoen diseinuari eta horrek euren osasunean duen inpaktuari buruzko eztabaida guneak sortu ziren.

Horrez gain, ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztu eta osasun komunitarioa hobetzeko gomendio batzuk konpartituko ditu. Leyre Gravinak. Gure udalerrietako

hiri guneeek bizimodu osasungarriagoak sustatzeko –edo oztopatzeko– duten ahalmenaz, eta bizilagunek arlo horretan parte hartzeko eta erabakitzeko dituzten aukerez hausnartzera gonbidatuko du. Hitzaldia gaztelaniaz egingo da.

Jarduera hau *Zientziaren Ertzetik* dibulgazio-zikloaren barruan kokatzen da, [Euskal Herriko Unibertsitateko Katedrak](#) eta [Durangoko Liburutegiak](#) antolatuta. Sarrera doakoa izango da, lekua bete arte, eta saioa zuzenean jarraitu ahal izango da EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren [TikTok](#) kanalaren bidez.

Hizlaria

[Leyre Gravina Alfonso](#) Biologian lizentziaduna da eta Fisiologian doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Gaur egun, Erizaintza I saileko irakasle agregatua da EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean. Halaber, “Erizaintza eta Osasunaren Sustapena” ikerketa-talde sortu berriaren ikertzaile nagusia da. Talde horrek osasun komunitarioa du ardatz, eta hiri eta gizarte inguruneko faktoreek herritarren bizi-ohituretan eta ongizatean nola eragiten duten aztertzen du.

Hitzaldi-solasaldia

- **Hitzaldia:** "El diseño de los barrios, factor determinante en la salud de sus habitantes" (Auzoen diseinua, biztanleen osasunean faktore erabakigarria)
- **Hizlaria:** Leyre Gravina, Fisiologian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea.
- **Data:** martxoaren 6an, ostirala.
- **Ordua:** 18:30ean.
- **Lekua:** [Bizenta Mogel Biblioteka](#) (Komentukalea, 8, Durango).
- **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
- **Streaming:** bai. [Katedratik](#) (TikTok)

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Charla-coloquio con la profesora Leyre Gravina

El diseño de los barrios, factor determinante en la salud de sus habitantes

Durango, 27 de febrero de 2026. ¿Es la falta de ejercicio una elección o una consecuencia de cómo están diseñadas las calles donde vivimos? Aspectos como la seguridad urbana, la iluminación o el nivel socioeconómico de cada barrio actúan como una “receta médica” invisible que condiciona la actividad física y, en consecuencia, la salud de quienes lo habitan.

En este contexto, [MugiBil](#), un proyecto de ciencia ciudadana impulsado por el grupo de investigación de Enfermería y Promoción de la Salud de la Universidad del País Vasco, ha investigado cómo la forma en la que se diseñan los barrios puede influir de manera directa en la salud de sus habitantes, ya que condiciona hábitos cotidianos como caminar o hacer ejercicio.

Para dar a conocer este proyecto de salud comunitaria, **Leyre Gravina**, investigadora principal de la iniciativa y profesora de la Facultad de Medicina y Enfermería de la Universidad del País Vasco, ofrecerá la charla-coloquio “El diseño de los barrios, factor determinante en la salud de sus habitantes” el próximo **viernes 6 de marzo en la Biblioteca Bizenta Mogel de Durango**.

Durante su intervención, Gravina explicará cómo alrededor de medio centenar de vecinos y vecinas de tres barrios de Bilbao –Deusto, Uribarri y San Francisco– salieron a la calle para analizar su entorno más cercano. Durante cinco semanas, identificaron y documentaron las barreras y activos de sus barrios mediante fotografías. A partir de este trabajo colectivo, se generaron espacios de debate sobre el diseño de los barrios y su impacto en la salud.

Además, también compartirá los principales resultados de esta investigación y una serie de recomendaciones orientadas a mejorar la salud comunitaria. La charla, que se impartirá en castellano, invitará a reflexionar sobre cómo los espacios urbanos de nuestros municipios pueden favorecer –o dificultar– estilos de vida más saludables y sobre el margen de participación y decisión de sus habitantes en este ámbito.

Esta actividad, que se impartirá en castellano, forma parte del ciclo divulgativo *Zientziaren Ertzetik*, organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y la [Biblioteca de Durango](#). La entrada es libre hasta completar aforo y podrá seguirse en *streaming* a través del canal de [TikTok](#) de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU.

La conferenciante

[Leyre Gravina Alfonso](#) es licenciada en Bioquímica y doctora en Fisiología (Universidad del País Vasco). En la actualidad es profesora agregada del departamento de Enfermería I en la Facultad de Medicina y Enfermería de la EHU. Asimismo, es investigadora principal del grupo de investigación emergente “Enfermería y Promoción de la Salud”, centrado en el ámbito de la salud comunitaria y en el análisis de cómo los factores del entorno urbano y social influyen en los hábitos de vida y en el bienestar de la población.

Charla-coloquio

- **Conferencia:** “El diseño de los barrios, factor determinante en la salud de sus habitantes”
- **Conferenciante:** Leyre Gravina, doctora en Fisiología y profesora en la Facultad de Medicina y Enfermería de la Universidad del País Vasco.
- **Idioma:** castellano.
- **Fecha:** viernes, 6 de marzo de 2026, 18:30 horas.
- **Lugar:** [Bizenta Mogel Biblioteka](#) (Komentukalea, 8, Durango).
- **Streaming:** sí. [Katedratik](#) (TikTok).



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica